


# IPARRALDEKO GOBERNANTZARI BURUZKO HERRITAR AUDITA

2019ko Urtarrila



**BATERA Plataforma**

[www.batera.info](http://www.batera.info)

# Iparaldeko gobernantzari buruzko herritar audita

*Eskuartearen duzun dozierra BATERAK 2018ko urritik abendura antolatu duen Iparaldeko gobernantzari buruzko herritar auditaren emaitza da.*

*Audita horren helburua Euskal Elkargoko gobernantzari buruz herritarren iritzi eta sentipenak bildu eta haren ibilmoldea hobetzeko proposamenak lantzea zen (Elkargoko politika sektorialak baloratzea ez zen sartzen auditaren helburuetan).*

*Dozier honek gogoetaldian parte hartu duten edo ekarpenak egin dituzten pertsonen iritzi eta ikusmoldeak biltzen ditu. Dozier hau ez da beraz BATERA plataformaren aldarrikapenen zerrenda nahiz eta seguraski bere kideak gomendio gehienekin ados izan.*

*Urte luzez Iparaldeko lurralde kolektibitatearen alde mobilizatu ondoren, BATERA plataformak hirigune elkargoa lehen urrats gisa onartu zuen 2015ean. Orain, Elkargo hau ahal bezain ongi funtziona dadin nahi du, lurralde honen herritar eta hautetsiek beren geroa eskutan hartzeko duten ahalmena urrunago eraman nahi baitu. Elkargoaren sortzea defenditu eta Iparaldeko jendea informatu zuenez, haren funtzionamendua begitarte zorrotz eta izpiritu eraikitzaile batekin aztertzea doakio orain BATERARI, bai eta geroan ere.*

*Finkatu bezala, hiru urratsetan iragan da herritar audita hori :*

- Tokiko bilkurak irailaren 15 eta urriaren 13 bitartean Iparaldeko lehen instituzioaren bilana egiteko.*
- Hautetsi, jendarteko eragile edo Iparaldekik kanpoko adituen audizioak azaroaren 3an eta 10ean.*
- Atelierrak, abenduaren 1ean, lehen bi faseetako elementuetan oinarrituz proposamenak lantzeko.*

*Audita horrek bere eskasiak eta ahuleziak badituzke. Denbora eta baliabideak falta izan dira azterketa sakonagoa burutzeko. Halere instituzioekiko mesfidantza eta ordezkartza demokratikoaren krisia garai honetan bertute baliosak baditu audita horrek.*

*Lehenik Elkargoaren funtzionamendu konplexuari buruzko herri heziketaren momentu azkarra izan da parte hartu duten herritar guztientzat. Bigarrenik ariketa demokratikoa burutu da instituzioarekiko erabat independentea izan baita eta Elkargoko arduradunek onartu baitute herritarren galdeei erantzutea, finkatutako joko arauak errespetatuz. Azkenik bertute politiko argia badu instituzioaren lehengo bi urteko bilana aztertzeagatik, haren abantail nahiz ahuleziak zerrendatuz eta hobetzeko ildoak buruzko eztabaidan ekarpenak eginez.*

*BATERArentzat anbizio handiko jendarte erne eta mobilizatu bati esker lortu da Euskal Elkargoa. Jendarte hau Iparalde mailako gobernantza demokratiko baten sakontze eta aitzinamenduen berme da etorkizunean ere.*

*Euskal Elkargoko presidentearen esku uzten dituen audita horren emaitzak harrotasunez presentatzen ditu BATERAK Iparaldeko herritar eta hautetsiei. Proposamenei instituzioko arduradunek emanen dizkioten segida hurbiletik so eginen du plataformak eta bitartean hel dakioken eskari orori erantzuteko prest gelditzen da.*

# Diagnosiaren elementu nagusiak

## Alde ezezkorrak

Barne faktoreak	Kanpo faktoreak
AHULTASUNAK	MEHATXUAK
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Herritarrekiko KANPO KOMUNIKAZIOA hobetzekoa da: webgunea gaizki egina da, Baskinfo aldizkariaren banaketa, komunikazio eskasagatik herritarrek instituzioa eta haren ibilmoldea gaizki ezagutzen dute...</li> <li>• ZENTRALIZAZIOA sobera handia da erabakietan eta zerbitzuetan: batzuek pentsatzen dute herriarteko kontseiluan bozkatu aitzin BATZORDE ERAGILEan hartzen direla erabakiak, lehendakariak bakarrik erabakitzen duela eta HERRIARTEKO KONTSEILUan aipagai sobera denez, erabakitze gune hori “grabatze gunea” besterik ez dela</li> <li>• Iduriz INSTITUZIOA ez da aski PARTE HARTZAILEA herri tipietako hautetsientzat: informazio eskasa, eztabaida guti...</li> <li>• LURRALDE PROIEKTUA, horren garatzeko estrategia, helburuak... ez dira argi iduriz</li> <li>• LURRALDE POLOAK ez dira egituratuak, ahulduak dira eta desagertzeko arriskua dute...</li> <li>• IBILMOLDEA sobera TEKNOKRATIKOA denaren inpresioa bada: teknikariek pisu handiegia dute eta hautetsi batzuk “profesionalizatzen” dira</li> <li>• Iduriz INSTITUZIOA ez da aski PARTE HARTZAILEA herritarrentzat: urruntze sentsazioa, jendarte zibilarekiko kontzertazio eskasa, burokrazia sentsazioa...</li> <li>• Euskal Elkargoko ESKUMENAK: batzuen ustez Elkargoak eskumen sobera ditu eta horrek kudeaketa eraginkorra galarazten du; beste batzuen ustez, aldiz, hartzen ahalko zituen eskumen guziak hartu behar zituen Elkargoak</li> <li>• KOSTA / BARNEALDEaren arteko DESOREKA maiz atera den gaia da: errealitate desberdinak ezagutzen ez direnaren sentsazioa bada baita lurraldeen arteko tratamendua desberdina dela</li> <li>• EUSKARA ez da aski presente Euskal Elkargoaren ibilmoldean</li> <li>• HEGO EUSKAL HERRIAREKIKO HARREMANAK ez dira aski garatuak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• SUFRAGIO UNIBERTSAL ZUZENA: hautetsiak ez dira herritarrek zuzenki hautatuak izan, legitimitaterik ez dute</li> <li>• GIZONEN ETA EMAZTEEN ARTEKO PAREKOTASUNA</li> </ul>

# Diagnosiaren elementu nagusiak

## *Alde baikorrak*

Barne faktoreak	Kanpo faktoreak
INDARGUNEAK	AUKERAK
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ipar Euskal Herriak EZAGUPEN instituzionala eta administratiboa badu, azkenean</li> <li>• Baliabideen MUTUALIZAZIOarekin eta zerbitzu eraginkorragoekin, Kostaren eta Barnealdearen arteko desoreka tipitzeko aukera bada</li> <li>• LURRALDEAREN KUDEAKETA OROKORRArendako gogoetatzeko parada bada</li> <li>• LURRALDE GUZIAK ordezkatuak dira, horrek elkarrenganako ezagutza ahalbidetzen duelarik</li> <li>• BESTE INSTITUZIOEKIKO HARREMANAK posible dira gaur egun eta Ipar Euskal Herriak pisu handiagoa du negoziatzeko eta partaidetzak garatzeko</li> <li>• Euskararen eta gaskoiaren EZAGUPENA</li> <li>• Ipar Euskal Herriko lurraldeak ESKUMEN gehiago ditu</li> <li>• Hautetsien arteko TIRA-BIRAK BARETU dira</li> <li>• BATZORDE batzuk ongi ibiltzen dira eta parte hartzen duten hautetsiak motibatuak dira</li> <li>• Euskara arloan, jendarte zibilarekiko KONTZERTAZIOA azpimarratu da</li> <li>• Teknikarien gaitasuna azpimarratu da, horrek herri tipiak bereziki laguntzen dituelarik</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• ITXAROPENA: Euskal Elkargoak itxaropena pizten du, bai aldarrikapen instituzionalean urrunago joateko, bai politika eraginkorragoak garatzeko (inguramena, laborantza, etab...)</li> </ul>


# Adituen audizioak



**André GARRETA**  
"Baiona Euskal Herriko Merkatal  
Garbarako lehendakaria



**Caroline PHILIPS**  
Garapen Kontseiluko lehendakaria



**Mattiu ETCHEVERRY**  
Euskal Elkargoko langilea, lurralde  
proiektuaren arduraduna



**Daniel BEHAR**  
ACADIE enpresa (Euskal Elkargoaren sorrerako  
gogoetak lagundu dituenak )

Le samedi 3 novembre, 4 personnes impliquées dans le processus d'institutionnalisation du Pays Basque Nord ont été auditionnées. Chaque intervenant-e était convoqué-e à une heure précise de manière à ce qu'ils-elles n'assistent pas aux autres auditions. Ainsi les prises de parole n'étaient pas influencées ni formulées en réponse aux interventions précédentes. Le choix de ces personnalités s'est fait en prenant en compte leurs fonctions respectives. Un peu plus de 30 personnes ont assisté à cette matinée. Chaque intervenant-e a répondu tour à tour à 3 questions avant un court moment d'échanges avec la salle. Ces auditions ont permis d'approfondir certains sujets pointés lors de la première phase de l'audit citoyen. Les réponses ont servi de matériel pour compléter le diagnostic et préparer la troisième phase de l'Audit .

# Hautetsien audizioak



**Emmanuel  
ALZURI**

**Maire de Bidart**

**Conseiller Délégué en charge du Littoral,  
Trait de Côte, Gemapi et Milieux Naturels**



**Eric  
NARBAIS JAUREGUY**

**Maire d'Arbouet Sussaute**

**Vice-Président en charge à l'eau  
potable**



**Maider  
BEHOTEGUY**

**Adjointe à Bardos**

**Vice-Présidente n charge des  
ressources humaines**



**Alain  
IRIART**

**Maire de St Pierre d'Irube**

**Vice-Président en charge de  
l'assainissement et l'eau potable**



**Jean René  
ETCHEGARAY**

**Maire de Bayonne**

**Président de la CAPB**

Le samedi 10 novembre, ce sont 5 élu-e-s qui ont été auditionné-e-s. Là encore, aucun-e n'a assisté à l'audition des autres afin de ne pas influencer les réponses. Le choix de ces personnalités s'est fait en prenant en compte leurs fonctions respectives ainsi que leur position vis à vis de la création de la CAPB. Environ quarante personnes ont assisté à cette matinée. Chaque intervenant-e a répondu tour à tour à 3 questions avant un court moment d'échanges avec la salle. Ces auditions ont permis d'approfondir certains sujets pointés lors de la première phase de l'audit citoyen, de recueillir l'avis d'élu-e-s directement impliqué-e-s dans la gestion de l'institution. Les réponses ont pu servir de matériel pour compléter le diagnostic et préparer la troisième phase de l'Audit Citoyen de la Gouvernance Pays Basque.

## Ipar Euskal Herriaren estatusaren bilakaerari lotuak diren egiturazko elementuak.



Diagnostikoaren fasean, egungo kuadro instituzionala galdezkatzen duten hainbat ohar agertu dira. Ohar horiek Herri-Elkargoaren mugak agerian ematen dituzte, jakinik, kuadro hori ez dela Baterak azken urteetan aldarrikatu duena, eta 2012an Garapen Kontseiluaren azterketen ondotik kontsentsua lortu zuen kuadroa, alegia, Lurralde Kolektibatatea. Adibidez, Elkargoaren kontseiluaren kideak sufragio unibertsalean oinarritua ez den hautatzeko modu baten muga demokratikoak azpimarratu dira. Agerian eman da ere, Hego Euskal Herriarekiko harremanen eskasia. Halaber, hautetsiaren egiazko estatus baten gabezia nabarmendu da ; halako estatus batek Ipar Euskal Herri osoaren mailan egituratua den instituzioa baten funtzionamoldean parte-hartze efektiboa bermatzeko baldintza materialak eskaini beharko lituzkeelarik.

Dokumentu honetan zehazten diren gomendioek ez dituzte diagnostikoaren elementu hauek jorratzen, estatus aldaketak edo/eta lege aldaketak inplikatzeko dituztelako. Aparte aztertuko dira, Ipar Euskal Herriaren kuadro instituzionalak beharrezkoak dituen egiturazko aldaketei buruzko gogoeta momentu berezi bat dedikatuz apirila/maiatza aldean.

*Ipar Euskal Herriko gobernantzari buruzko audita egiterakoan, agertu dira gaurko kuadro instituzionalari lotutako hainbat muga. Aldi bat baino gehiagotan erreferentzia egin da estatus bereziko Lurralde Kolektibitateari.*



# Gobernantza instantzia ezberdinak eta haien eginkizunak

## 1. Gobernantza paktoa lehenbailehen berriatz

2017an, Euskal Elkargoak bere dokumentu fundatzailea balioetsi du. Bertan, bere funtzionamendurako arauak finkaturik daude. «Gobernantzarako hitzarmena» deitzen da. Dokumentu hori 2020ra arte aplikagarria izanen da. Hautetsi ala hautagaiek informazio osoa ukaiteko gisan, beharrezkoa da 2020ko martxoko udal eta elkargoko hauteskundeak aitzin, Gobernantza Hitzarmen bat berriatztea.

## 2. Buruzagitza instantzietan lurraldeen tokia segurtatu

2017an sortu zelarik, Euskal Elkargoko instantzia kudeatzaileak, garai hartako lurralde errealitateen arabera osatuak izan ziren (aitzinean, 10 EPCI baziren). Gobernantza Hitzarmena berri idazteko mementoan, nahiz eta instantzia horien osaketa berri ikusia izan daitekeen, lurralde ezberdintasuna konduhan hartzea premiazkoa da. Horrela, Batzorde Permanenteak, Kontseilu Betearazleak eta Gai Batzordeek lurraldeengandik lukete beren bidez kotasuna.

## 3. Lehendakariordetza tematikoak eta lurralde lehendakariordetzak bereizi

Argitasun eta eraginkortasun helburuz, gauza nahigarria litzateke funtzioak batzuen artean partekatzea. Erantzunkizun aldetik hautetsi gehiago iganarazteaz gain, proposamen horrek funtzionamendua faboratuko du, batzuen eta besteen egitekoak argiago mugatuz.



# Neurri berri batzuk tokikotzen dituen barne araudia

## 4. Arduren metaketa mugatzen duten arauak finkatu

Instituzio oro ahalik eta hobekienik ibil dadin, beharrezkoa da hautetsi batzuk osoki inplika daitezen. Euskal Elkargoko lehendakartzak denbora osoz engaiatzea eskatzen du eta beraz ezin daiteke ber denboran auzapez izan. Bide berez, Euskal Elkargoko funtzio betearazleak ez dira bateragarriak departamenduko, eskualdeko eta parlamentari kargu batekin. Azkenik, ez da ikusten nola EEko lehendakariordetza eta herriarteko sindikatuena batera hartzea egokia denik.

## 5. Euskal Elkargoko buruzagi instantzietan parekotasuna segurtatu

Buruzagi instantzietan parekotasunari begira, EHE gai horri buruzko hitzarmen baten izenpetzaile bada ere, gauza ageria da funtzio betearazleetan emazteen presentzia arras ttipia dela. Gai horretan urrunago joatea komeni da, geroko gobernantza hitzarmenean engaiamendu azkarrak markatuz.

# Hautetsiak, erabaki politikoaren eragile nagusiak.

## 6. Hautetsiak erabakien erdian ezarri, zerbitzuen sustenguekin

Administrazio eta teknika zerbitzuak instituzioko baliabideen bihotzean daude. EEko funtzionamenduaren osagaiak dira eta egunerokoan bizi arazten dute. Soldatadunak baitezpadakoak zaizkie, hautetsiak trenpu hoberenean emaitako, politika publiko ezberdinei buruzko erabaki estrategikoen hartzeko. Administrazioaren auzia egin gabe, arreta berezia hartze du, jakinik hautetsia gelditzen dela beti erabakiaren erdian, politikoak emaiten duela urratsa.

## 7. Hautetsien parte hartze baldintza faboratu (hautetsiaren estatus bati buruz), bereziki EEren eta elkargo honetan arduradun diren hautetsiak enpleatzen dituzten elkarte eta enpresen artean hitzarmen bat bideratuz

Gaur arte ipar Euskal Herriak ezagutu dituen instituzio edo elkarte kuadro guztiak gainditu ditu gaur egungo Euskal Herri instituzioak. Ibiltzeko EEko libro diren eta beren kargualdian osoki inplikatuak diren hautetsiak behar ditu. Ofizioko lanari, udal karguari eta EEko arduradun funtzioari buru egitea ez da beti gauza errega. Beraz, instituzioak gogoetaldi bat ireki lezake kasu horretan diren hautetsien enplegatzaileekin, pertsona horien ordutegia ahal den neurrian egokitzeko.

## 8. Kontratatzeko prozeduretan, hunkitua den lurraldeko hautetsiek parte hartzen dutela segurtatu

Aipatu lurralde batean, beren funtzioa betetzera ekarriak izanen diren langileak enplegatzean, lurralde horretako hautetsiek ere enplegatze prozeduretan parte har dezaten (epaimahaian, hautagaien hautatzean...).

# Batzorde tematikoak, erabakiak aitzinetik lantzeko tokia.

## 9. Dosier garrantzitsuenak aitzin, Euskal Elkargoko batzordeen biltzea segurtatu

Orokorki, Eeko lanetan parte hartzea zaila gertatzen da hautetsientzat. Bestalde, batzorde batzuen funtzionatze moldeak ez du informazioaren partekatzea faboratzen, hautetsi guzien ekarpena egiazki konduan hartua izaiteko gisan: aurkeztuak diren mementoan, dosier batzuek osoki estekatuak dirudite. Beraz, lehen aldietatik haste, hautetsiek hobeki parte hartu behar dute haien prestakuntzan eta erabakiaren lantzean.

## 10. Batzorde tematikoak jendarte zibileko eragileei ireki.

Euskal Elkargoa, instituzio «ez parte hartzaile» bat bezala bizi dute herritarrek: bizitzaileetatik urrundua, eta jendarte zibilarekin elkar aditze eskasa jasan beharra, bulegokrazia baten sendimendua... Irudipen hori zuzendu behar da eta jendarte zibileko eragileen parte hartzea hobeki segurtatu, batzorde bakoitzean jendarte zibileko ordezkari zenbait barneratuz, Garapen Kontseiluaren bitartez.

## Bere lurralde guziak engaiatzen dituen Ipar Euskal Herriko instituzioa

### 11. Gai batzuentzat erabakiak elkarrekin hartzeko eskema bat finkatu, hurbileko bizitza politiko erne bat ahalbidetzeko (adibidez, aurrekontuen prestakuntza)

Hirigune mailan, hautetsien parte hartze haundi bat erakutsi du herritar diagnostikoak, bereziki baikorra eta beharrezkoa bezala ikusia izan dena, instituzio eraikuntzaren aldi honetan ; haatik, lurralde guneen jardueraren bizkar lortu kontzentrazio bat bezala sumatua dena. Hurbileko instantzia batzuen atxikitzearen garrantzia azpimarratu dute parte hartzaile guziek, hiriguneko lurraldeetan, bizitza demokratiko erne baten atxikitzeko. Horretaratzeko, erabakiak elkarrekin hartzea palanka egoki bat litzateke, parte hartze haundiago baten sustatzeko, elkargopean dauden lurralde horientzat.

### 12. Lurraldeguneen ingurua berriz marraztu

Elkargopeko lurraldeak aipatuz, egoki litzateke inguru horiek berriz finkatzeari pentsatzea, tokiko eragileentzat zentzuzko eremuak baitira, gaurko jokagaiekin lokarriak dituztenak.

### 13. Elkargo politiken deklinabidea herriaren mailan erakutsi

EEK daramatzen politketan, herriaren edo hirien kasuan auzoaren mailako deklinabide bat sistematikoki aitzinetik ikusi. Deklinabide hori herriko hautetsiengain finkatuko da eta herritarren parte hartzea bera faboratuko du, elkargo interesa duten eskualde politiken tokiko aplikazioan, eta bereziki, trantsizio ekologiko eta sozialaren, euskararen eta mugazgandikoaren zeharkako gaitasunen aldetik.

## Elkargoko zerbitzuen deskontzentrazioa

### 14. Baliabide teknikoak, lurraldeko egitasmoen animazio ingeneria baten bidez osatu.

Baliabide teknikoetaz haratago, EEk egitasmoen sustatzeko zerbitzuak lurraldean ezar litzake. Horrela, instituzioaren presentzia indartuko luke herriko etxe, elkarte eta orohar egitasmo ekarleetatik hurbilago izanez.

### 15. Zerbitziburuen tokiko permanentziak segurtatu

EEeskuduntza alorzabal batean engaiatua da. Interesgarria litzateke, zerbitzu ezberdinetako soldatadun arduradun batzuk erregulariki tokiko permanentzia bat atxik balezate lurraldeetan, udal hautetsi edo salariatuetatik ahal bezainbat hurbiltzeko.

### 16. Hurbileko solaskideak atxiki harrera, informazio eta jende laguntza zerbitzuetan.

Instituzio oro bezala, EEren bokazioa da jendeari zerbitzuak ematea. Garrantzitsua da, tokiko solaskide fisikoen atxikitzea, hartzaileak zuzenean jakinean emateko (laguntza baliabideak).

### 17. Epe laburrean, zerbitzu elebidun bat jendeari segurtatzea

EEko hizkuntz politika planak aurreikusten du euskararen presentzia eta itzulpena erabiltzea, bereak dituen gaitasun alorretan. EEko eragileentzat formakuntza plan batzuk tokian ezartzea konbeni da, epe labur bat barne, jendearekilako zerbitzuak euskaraz ere segurtatzeko.

## Herritarren informazioa (1/2)

### 18. Instantzia erabakitzaileetako biltzarrak zuzenean internetez zabaltzea

Elkargo Kontseiluko eta Batzorde permanenteko biltzarrak interneten bidez zabaltzea, lurraldeko bizitzaileek ikusteko gisan. Baliabide teknikoa ezarrita dago eta lehen biltzarrean erabilia izan da.

### 19. Herriko Etxeek sustatu EErentzat sail bat udal aldizkarietan ezar dezaten.

Udalerrri gehienek beren aldizkariaren bitartez komunikatzen dute. Honek "EE" sail bat ukan lezake, Euskal Elkargoko informazioak udalerrikoarekin batera zabaltzeko gisan.

### 20. EEko informazio aldizkaria, Iparraldeko bizitoki guzietara zabaltzea.

Euskal Elkargoak informazio kazeta bat badauka (Baskinfo). Gertatzen dena da berau ez dela gutunontzi guzietara heltzen. Zerbait egin beharko da, instituzio informazio hori denen eskura hel dadin.

### 21. Hautetsien eta herritarren arteko informazio bilkura tokian bertan antolatu.

Urtean behin edo berriz informazio bilkurak antolatu, lurralde guneen baitan, lurralde guneko elkargo kontseilarien, udal kontseilarien eta herritarren artean.

## Herritarren informazioa (2/2)

- 22.** Publiko zabal bati buruzko informazio bat egiteari kasu egin, EEko soldatadun kopurua , haren bilakaera eta finantza ondorioa ezagutarazteko.

Diagnostik aldian, aldi bat baino gehiagotan agertu den sendimenduari buru egiteko, garrantziazkoa da EEk gai horretaz pedagogia lan bat egin dezan. Eskuduntza berrien eskuratzeak enplegatze asko erakar dezake. Berauen bilakaera eta aurrekontuan daukan ondorioa ongi esplikatu behar da, herritarrek helburuak ongi uler ditzaten.

- 23.** Euskal Elkargoaren organigrama argi bat egin

Antolaketa ongi argitu eta, organigrama bat idatzi beharko da hautetsiek eta herritarrek ukan dezaten informazio osoa eta zuzena eta identifikatzeko gisan interlokutoreak.

- 24.** Komunikazio euskarrietan euskararen erabilpena indartu.

Euskal Elkargoak bi delibero onartu ditu euskarari buruz. Lehenaz egapen ofizial bat onartuz eta bigarrena hizkuntza politika proiektua zehazten duena. Bi delibero horiek kondutan hartu behar dira euskarri komunikatibo guzietan euskararen erabilpena indartzeko (paperezko dokumentuetan, webgunean, sare sozialetan...).



# Herritar parte hartzea eta zaintza

## **25.** Iritzi emaite eta proposamenen egitea lagundu, denei irekiak diren jardunaldi tematiko batzuk antolatuz

Egun horien bidez, lantzen ahalko dira gai baten inguruko proposamenak. Irekiak izanen dira gaia menperatzen duten eragile guziei, egituratuak izan edo ez. Euskal Elkargoak kudeatzen dituen gai guzien inguruan eremaiten ahalko dira gogoetak (kultura, etxebizitza, kirola, euskara, laborantza, mugikortasunak...)

## **26.** Herritar kontsultak antolatu

Herri mailan jadanik posible diren kontsulta horiek ahalbideratuko lukete herritarren parte hartze zuzena erabakietan. Ariketa honen bidez, herritar guzien iritzia bilduko genuke Ipar Euskal Herri edo Euskal Herri mailako erabaki politiko inportanteentzat. Azken asteetako aktualitatea ikusi eta, gomendio honek bere indar guzia hartzen du herritarren hitza konduan hartzeko erabakia hartu aitzin, gogoeta fasean baita erabakitzeko mementoan.

## **27.** Tokiko edo gai zehatz batzuen inguruko auditak antolatu, herritarrei emaiten diren zerbitzuen ebaluatzeko, zortean hautatutako herritar epaimahain batekin

Instituzioak segitu baldin badu zerbitzuen eskaintzen herritarrei, berrantolaketa garaian duda batzuk agertu dira zerbitzu publikoen geroari begira baita kalitatearen aldetik eta hurbiltasun ikuspegi batetik. Usaiako galdetegietatik haratago, berrikuntza bat litaike holako sistema baten aktibatzea.

# Metodologia eta herritar auditaren urratsak

Herritar audita hiru fasetan iragan da : egoeraren diagnostia, ikuspunduen trukaketa eta proposamenen lanketa. Fase bakoitzaren ondotik BATERAko talde eragileak sintesia lana egin du ondoko fasea prestatzeko. Gisa berean, azken fasea bukatu ondoren, diagnostian agerturiko elementuen arabera proposamenen sailkapena eta idazketa lana burutu du.

Lehen fasea : tokiko bilkurak, normahiri idekiak.

- Irailaren 15 eta urriaren 13aren artean
- Helburua: Elkargoaren lehen bi urteetako bilana egitea. Parte hartzaileek ondoko galderari erantzun behar zioten : Zein dira ezagutzen edo sumatzen dituzun elementu, joera edota alderdi negatibo/positiboak Euskal Elkargo sortze eta ibilmoldean ?
- Bilkura guzietan metodologia bera erabilia izan da, hots egoeraren aspektu guziak bi irizpidetako matrize batean sailkatzea: negatiboak edo positiboak eta barne faktoreak (zeinetan eragiten ahal dugun) edo kanpo faktoreak:

	---	+++
kanpo faktoreak	mehatxuak	aukerak
barne faktoreak	ahuleziak	indarrak

- Ariketa internet bidezko galdategi batekin osatua izan da.

Bigarren fasea : hautetsi, jendarteko eragile edo Iparraldetik kanpoko adituen audizioak. Azaroaren 3an eta 10ean iragan dira Ezpeletan. Aldi oro 4zpa 5 pertsona gomiatuak izan dira eta bakoitzak lehen fasetik atera hiru galderi (aurretik prestatuak) erantzun die 20 minutuz, ondotik publikoarekin 10 minutako eztabaida izan delarik.

Hirugarren fasea : lankiak Ainhizen Abenduaren 1ean

- Helburua: diagnostikoaren eta informazio gehigarrien bilketaren ondotik proposamen idatziak egitea, ibilmolde instituzionala hobetzeko.
- Partaideak lau multxotan banatu dira, bakoitzak gai bat landu behar zuelarik : Elkargoa eta herritarrekin harremanak / Elkargoa ea lurraldeekin harremanak / Elkargoaren ibilmolde demokratikoa / Elkargoa eta zerbitzuen funtzionamendua


- Talde bakoitzak hiru urratsetan eraman du bere lana, epe luzeko helburuak nahiz epe ertain edo motzeko aurrerapausoak formulatu ahal izaiteko :

- Zein dira taldeko gaiaren arazoak ?
- Inongo mugarik ez balitz nola/zer egin genezakeen ? Nola erantzun arazo horiei ?
- Proposamen konkretuak : arazoetatik abiatuz eta gure epe luzeko helburuak kontutan hartuz, zein proposamen konkretu egin daiteke ?


# Gobernantza paktoa eta Euskal Elkargoaren organigrama

Hainbat aldiz, auditean aipatu dugu Euskal Elkargoaren gobernantza paktoa. Sakondu nahi dutenentzat, beheko loturan klik eginez irakurgai duzue: **labur.eus/FWvS5**

Eta hemen ondoan ikusgai duzue Euskal Elkargoaren organigrama.



**BATERAk** ariketa demokratikoa izan den gobernantzari buruzko herritar audita honetan parte hartu duten guztiak eskertu nahi ditu: diagnostia egiteko tokiko bilkuretako partaideak edo Ainhizako atelierretan lan egin dutenak bai eta entzute saioetan galde batzuei erantzutea onartu duten pertsonalitate, esperto eta hautetsiak ere.



Batera Plataforma  
BP 40  
64250 EZPELETA

[plateforme.batera@gmail.com](mailto:plateforme.batera@gmail.com)

[www.batera.info](http://www.batera.info)